


Euskal AEn 10 langile edo gehiagoko enpresen %91,6 Internetez aritzen da Administrazio Publikoarekikoetan

Internet eta web orria duten 10 langile edo gehiagoko euskal enpresen portzentajea 28-EBko batez bestekoaren gainetik da

Internet duten 10 langile edo gehiagoko euskal enpresen %91,6k haren bidez burutzen du izapide edo zerbitzuren bat Herri Administrazioarekin, Eustaten datuen arabera. Informazioa lortzeko, inprimakiak jaso eta betetzeko, gizarte-kotizazioak adierazteko, sozietate-zergak, BEZ, proposamen eta lizitazioak aurkezteko eta abar. Tamaina aintzat hartu gabe, enpresen %83,3 aritzen dira Internetez Administrazioarekin.

Euskal enpresetako IKT- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia- eta berauek darabiltzaten enplegatu-portzentajea haziz doaz 2016an. Establezimenduen %87,6k ordenagailua du, azken urteko ehuneko 1,5 punturen igoeraren ondoren. E-maila %85,1ek du, 1,3 puntuz gehitu da; %86,2k Internet, 2,1 puntu gehiago. Establezimenduen %92,3k telefono mugikorra dute; ehuneko 2,5 puntuz gehitu da azken urtean; beti ere ekipamendu zabalduea.

1. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera euskal enpresetan (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Enpresen %51,4k webgunea daukate, 0,9 puntuko hazkundea azken urtean. Internet baduten enpresak bakarrik hartuz kontuan, %59,7k dute weba.

Lurraldeka ez dira oso esanahitsuak aldeak, baina Arabak du teknologia hauen ezarpenik handiena; Gipuzkoak ondoren. Bizkaian txikixeagoak dira zifrak.

10 langile edo gehiagoko enpresek zertxobait hobetu dituzte IKT ekipamenduak, gorenetik gertu baitaude

Ekipamendu-portzentaje hauek handiagoak dira 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan; oso zabaldua daudenez, hazkundera askoz mugatuagoa da establezimendu txikietan baino. %99,2k ordenagailua du, %98,7k posta elektronikoa, %98,1ek Internet, %96,1ek telefono mugikorra, %88,8k weba.

1. taula: IKT ekipamenduak establezimenduetan, lurralde-arlo eta tamainaren arabera. 2016 urtea

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet		Telefono mugikorra		Web-orria	
	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*
Euskal AE	87,6	1,5	85,1	1,3	86,2	2,1	92,3	2,5	51,4	0,9
Araba/Álava	89,7	1,7	85,3	-1,4	86,2	-0,9	92,1	2,9	54,6	1,2
Bizkaia	86,5	1,2	85,0	2,4	85,5	2,7	92,6	2,4	49,5	-0,1
Gipuzkoa	88,5	1,9	85,0	0,5	87,3	2,2	91,8	2,3	53,2	2,6
Enplegu-geruza										
0 - 9	86,7	1,6	84,0	1,4	85,2	2,2	92,0	2,5	48,5	0,9
≥ 10	99,2	0,2	98,7	0,7	98,1	0,3	96,1	2,0	88,8	2,3

* Ehuneko puntu-aldea, aurreko urtearekiko

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Teknologia hauek darabiltzaten langile portzentajea berriz hazi da. Ordenagailua langileen %69,8k darabil; posta elektronikoa %64,0k; %63,1ek Internet.

Garrantzitsua da adieraztea ezen teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen portzentajeak kontuan hartuta, aldeak asko txikitzen direla. Izan ere, establezimendu txikiek gehiago aurreratu dute, eta handietan enplegatuen zati batek baino ez du enpresako ekipamenduak erabiltzeko aukera.

2. taula: IKT ekipamenduak establezimenduetan, lurralde-arlo eta establezimenduaren tamainaren arabera (%). 2016 urtea

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet	
	Establezimenduak, guztira	10 enplegatu edo gehiagokoak	Establezimenduak, guztira	10 enplegatu edo gehiagokoak	Establezimenduak, guztira	10 enplegatu edo gehiagokoak
Euskal AE	69,8	69,2	64,0	63,4	63,1	60,4
Araba/Álava	68,2	67,5	60,3	59,7	58,2	55,6
Bizkaia	71,1	71,4	65,8	66,2	65,2	63,6
Gipuzkoa	68,7	66,6	62,9	61,2	62,4	57,9

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Enpresen %83,8k badu informatika-segurtasunerako neurriren bat: antibirusak, suebakiak, zerbitzari seguruak, autentifikatzeko mekanismoak, segurtasun zerbitzuak. 10 langile edo gehiagoko enpresen %98,7k.


Euskal enpresen %56,0k software librea du, esaterako Internet nabigatzaileak, ofimatika programak, sistema eragile doako edo irekiak (Linux...) e.a. Ehuneko hori %75,7 da 10 langile edo gehiagokoetan.

Gero eta zuntz optiko gehiago, ADSL ordeztuz

Internet duten euskal enpresak %86,2 dira; aurreko urtearen aldean ehuneko 2,1 puntuko hazkundera.

Mugikorraren bidezkoa (%79,6) eta ADSL (%74,7) dira sarerako konexio nagusiak, baina lehenengoa egonkortu egin da aurreko eta bigarrenak 2,4 puntu galdu ditu azken urtean.

2. grafikoa: banda zabaleraren bidezko Internet. (%)



(*) 2008tik aurrera Kablea bereizi egiten da Beste konexio finkoetatik
Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Zuntz optikoa (kablea, FTTH...) ehuneko 8,2 puntuz gehitu. Internet baduten enpresen %48,7tan da; ADSL ordeztuz.

Konexio mugikorrak, telefono mugikorrez (smartphone, PDA... %79,6), ordenagailu eramangarriak (tablet, netbook...%52,2) sendo hazi ondoren gelditu egin dira aurreko. Konexio mugikorrez konektatzen diren enpresak %81,6 dira, azken urtean 0,8 puntuz gutxitu direlarik.

10 langile edo gehiagoko enpresetan, %98,1ek badu Internet. Telefono mugikorraren bidezko konexioak dira sarerako sarrera nagusi, %81,4; ADSL oso gertu, %79,2.

Zuntz optikoa (kablea, FTTH...) ehuneko 6,3 puntuz gehitu da; konexioen %60,2. Konexio mugikorretan ordenagailu eramangarriaren bidezko sarrera (%65,1, -5,9 puntu azken urtean) azpimarragarria da,

10 langile edo gehiagoko euskal enpresen %88,8k, den-denak %51,4k, web orria dute


Enpresak gero eta kontzienteagoak dira webaren garrantziaz. Azken urtean sarean badiren enpresak guztien %51,54 dira, ehuneko 0,9 puntuz hazi ondoren; 10 langile edo gehiagoko

enpresen artean %88,8 da portzentajea, 2,3 puntuz hazi ondoren. Internet badutenen artean, enpresen %59,7 guztiak hartuta eta %90,5 10 langile edo gehiagokoetan.

Web orrietan nagusiki enpresaren gaineko informazio orokorra izaten da, produktu eta zerbitzuen zerrenda, informazio-pribatutasunaren adierazpena, enplegu-eskaintzak, saldu ondorengo zerbitzuak.

Orriotako sarbide hizkuntzetan gaztelera da nagusi, %99,0; euskaraz %36,0; ingelesa %27,8 eta beste %13,3.

3. grafikoa: 10 langile edo gehiagoko establezimenduak, Interneterako sarbide eta web orriaren arabera, estatuen arabera (%). Enero 2015



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak. 2015
 EUROSTAT 2015

10 langile edo gehiagoko euskal enpresen Internet sarbidea 28-EB europar batez bestekoaren gainetik da

Nazioartekoan, eta 28-EBkoarekiko konparagarritasun perfekturako, 10 langile edo gehiagoko enpresen datuak eta Eurostatek multzokatutako jarduerak erabiltzeaz gain (ez dira kontuan hartzen finantza-sektorea, administrazio publikoa, e. a.) aurreko urteko, 2015eko informazioa erabili behar da, non euskal enpresen portzentajeak Internet sarreran (%97,3) 28-EBkoaren (%97) gainetik zen; hortaz gain web zuten enpresak %85,8 ziren Euskal AEn eta %75 batez beste 28-EBn.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
 Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; prentsa ohar gehiago
 Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak; datu-bankua